

TURISMO, MERKATARITZA ETA
KONTSUMO SAILATurismo eta Merkataritza Sailburuordelza
Merkataritza ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMOViceconsejería de Turismo y Comercio
Dirección de ComercioEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOTURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO2018 A.P.I. 09
ABR.

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. 134786

Dpto. Medio Ambiente, Planificación
Territorial y ViviendaDirección Planificación Territorial,
Urbanismo y Regeneración Urbana

A/A Ignacio de la Puerta

C/ Donostia-San Sebastián 1

01010 Vitoria-Gasteiz

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

2018 A.P.I. 10
ABR.

Estimado, Ignacio.

SARRERA	IRTEERA
Zk. 294003	Zk.

Adjunto remito documentación recibida en esta dirección procedente del Ayuntamiento de Usurbil en relación al trámite de alegaciones al avance del Plan Territorial Sectorial de Grandes Equipamientos Comerciales.

Reciba un cordial saludo,

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de abril de 2018.

Juan E. Andrades García
Director de Comercio



2018 A.P.I. 06

SARRERA	IRTEERA
Zk. 283706	Zk.

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO
Dirección de Comercio
A/A Juan Emilio Andrades
c/Donostia-San Sebastián, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ

Honekin batera Usurbilgo Udaletxetik bidali eta lurralde bulego honetan jasotako dokumentazioa igortzen dizut; bertan azaltzen dira Merkataritza Gune Handien Lurraldearen Arloko Planaren aurrerakinari egindako alegazioak.

Adjunto la documentación recibida en esta oficina territorial, procedente del Ayuntamiento de Usurbil, en la que se presentan las alegaciones al avance del Plan Territorial Sectorial de Grandes Equipamientos Comerciales.

Atseginez,

Atentamente,

Donostia, 2018ko apirilaren 4an

Donostia, 4 de abril de 2018

LOURDES IRIBAR GARMENDIA
MERKATARITZA-ANTOLAMENDUKO TEKNIKARIA
TÉCNICA ORDENACIÓN COMERCIAL



TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
Gipuzkoako Turismo eta Merkataritzako Lurralde Bulegoa
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO
Oficina Territorial de Turismo y Comercio de Gipuzkoa

2018 A.P.I. / 4
ABR.

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. 29310



Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE USURBIL

ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL

IRTEERAREN erregistroko frogagiria
Justificante del registro de SALIDA

Igorlea / Remitente:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

ALKATETZA

NAN/DNI/IFK/CIF:

E-mail:

2018 MAR. 28

Jasotzailea / Receptor:

ZUZENEAN GIPUZKOA

SARRERA IRTEERA

Zk 267986 Zk.

EUSKO JAURLARITZA

NAN/DNI/IFK/CIF: 00000001R

E-mail:

Erregistroren datuak / Datos de registro:

Data/Fecha: 2018-03-28

Ordua/Hora: 11:47

Urtea/Año: 2018

Zenbakia/Número: 000000974

Gaia/Asunto: MERKATARITZA GUNE HANDIEN LAP-AREN AURRERAKINARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Erantsitako fitxategiak / Ficheros adjuntados:

I-2018-0974.pdf

Azalpenak edota eskaera / Expone y/o solicita:

USURBIL 2018-03-28

USURBILGO Udaleko Alkate Andrea/Jaunari

Honako agiria USURBILGO Udaleko Erregistro Orokorrak sortu du, modu automatizatuan. Erregistrora sartzeko erabiltzen den identifikazio sistemak egiaztatzen du igorlearen nortasuna.

Datuen babesa: Idatzi honetan jasotako datuak USURBILGO udalaren ardurapeko fitxero batean gordeko dira, behar diren administrazio-kudeaketak egin ahal izateko. Agiri hau emandakoan horren berri jaso duzula eta ados zaudela onartzen duzu. Eskubidea duzu datuak eskuratu, zuzendu, indargabetu eta horiei aurka egiteko; horretarako udalari jakinarazi behar diozu. Informazio gehiago udaletxeko web orrian.

USURBIL 28-03-2018

Al Sr./Sra. Alcalde del Ayuntamiento de USURBIL

El presente documento ha sido generado de forma automatizada por el Registro General del Ayuntamiento de USURBIL. La identidad de la persona remitente queda acreditada mediante el sistema de identificación empleado en el acceso al Registro.

Protección de datos: los datos recogidos serán incorporados a un fichero cuyo responsable es el Ayuntamiento de USURBIL, con el fin de realizar las actuaciones administrativas correspondientes. Al entregar el documento Ud. reconoce haber sido informado/a y estar de acuerdo con ello. Podrá ejercitar los derechos que le asisten de acceso, rectificación, cancelación y oposición, comunicándolo a este Ayuntamiento. Más información en la web municipal.

Dokumentu hau ziurtatu nahi baduzu Interneteko orri honetan egin dezakezu

Para certificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet

<http://dokumentuak.gipuzkoa.eus>

Dokumentu honen iraunaldia amaitzen da igorpenetik hiru hilabetera

La vigencia de este documento expira a los tres meses de su emisión

NAN/DNI: 00000001

KODEA/CLAVE: 1235718



Usurbilgo Uktala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

2018 MAR. 28

ZUZENEAN GIPUZKOA

SARRERA

IRTEERA

Zk. 267986

Zk.

Xabier Arregi Iparragirre jaunak, 15968340S DNI zenbakia duenak, jakinarazpenetarako Joxe Martin Sagardia z/g helbidea duenak, USURBILGO UDALAREN izenean, honako idatzi honen bitartez hurrengo **ALEGAZIOAK** egiten dizkio EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORU PUBLIKOA ETA MERKATARITZA EKIPAMENDUAK SORTZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN BERRIKUSPEN PARTZIALAREN AURRERAKINARI, MERKATARITZA-GUNE HANDIEN ANTOLAMENDUARI DAGOKION ATALEAN.

SARRERA

Gure lurraldearen antolamenduan berebiziko garrantzia dute merkataritza-ekipamenduek. Sektore estrategikoa da, ekonomiari bete-betean eragiten diona, eta gure kontsumo- eta bizi-ohiturak errotik baldintzatzen dituena.

Azken aldian maiz iristen zaizkigu merkataritza-gune handiei buruzko albisteak. Gune berrien proiektuak nonahi sortu dira. Donostia inguruan, ekialdetik mendebaldera, ez dira gutxi proposatu diren egitasmoak: Zaldunborda, Illunbe, Garbera, Belartza, eta beste hainbat. Gutxi gorabeherako estimazioa eginda, esan daiteke horiek gauzatuz gero beste 200000 m² gehiago okupatuko liratekeela merkataritza-gune handietarako. Donostialdea, de facto, korridore komertzial handi bat bihurtuko litzateke.

Paradoxikoki, handitzeko joera hori ez dator bat mundu zabalean, eta guregandik gertu ere, nabarmentzen den ereduaren krisiarekin. Gaur egun, merkataritza-guneak ixten ari dira. Joera orokorra da, bestelako eredu batzuek (bereziki online merkataritzak) hartu duten indarrarengatik.

Egoera honetan, proiektu berri ugarien presakako tramitazioek desestabilizazioa ekarri dute. Inoiz baino beharrezkoagoa da sektorea erregulatzea, udalez gairik planifikazioa, eta neurritz kanpoko handitze-eskaera horiei muga jartzea. Inoiz baino beharrezkoagoa da merkataritza-, kontsumo- eta bizi-ohiturak zaintzea, eta gure herrietako izaera, erro sakonak dituena, babestea.

Usurbilgo Udalak erabakia du Udaltzaren irizpide hauekin koherenteak izango diren alegazioak aurkeztea. Hala bada, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztu duen merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko aurrerakinaren azterketa eta berrikuspina egin dugu, eta dokumentu horri alegazio hauek aurkezten dizkiogu, sektorearen gairik gaitzespena geldiarazteko, merkataritza-eskaintza ez desorekatzeko, merkataritza txikiak babesteko, eta herrien bizi-ohiturak zaintzeko.

Iruditzen zaigu aurrerakin honek testuinguru zabalagoa behar duela; oro har, merkataritza-gune handien antolamendutik harago. Esate baterako, kontuan beharko litzateke erabilitako lurzoruen berronartzea derrigorrezko irizpideak, edo erabilaren segregazioa ekiditeko neurriak.

Orain aztertzeraz goazen aurrerakinari dagokionez, Udalak planteatutako irizpideak aintzatesten dituen alternatibarik gertukoena bigarrena da. Ondoren azalduko dugun bezala, alternatiba hau osatu egin behar da LAGen berrikuspen dokumentura egokitzeko.



Usurbilgo Udala

OINARRI JURIDIKOAK

Euskadiko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 17 artikulua honela ezartzen du: “Lurraldearekiko Alor-Egitamuek Antolakuntza-Artezpideek zein horien garapenerako egin daitezten Lurraldearekiko Zati-Egitamuek zehaztutako lurralde-esparruan, hasiera-hasieratik, ahalik eta egokien sartzea bermatu ahal izateko, gaia dela-eta hori gertatzeko gaitasuna duten autonomiazko nahiz foruzko Administrazioiko ihardutze-sailek aurrez iritzia eskatu beharko diote Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro-Sailari, alor-egitamuketaren helburu diren lan, ekintza edo zerbitzuen kokatzeko indarrean dagoen lurralde-antolakuntzak eskaintzen dituen aukera, konponbide eta ahalbide ezberdinei buruz.”

Jarraitzen du honako hau ezarriz: “kasu bakoitzean aukera dadin aukera indarrean dagoen lurralde-antolakuntzarekin baterakoa dela egiaztatu beharko da.”

Horrez gain, beste hau ere ebazten du: “Salbuespenez, Alor-Egitamua gertatzeko gaitasuna duen ihardutze-sailak aztertutako aukera eta konponbideetatik bat bera ere indarrean dagoen lurralde-antolakuntzan kokatzea ezinezko izan eta horren edukia berarizko herri-zuduzkoa izan dadinean, ihardutze-sail horrek Eusko Jaurlaritzari, lurralde-antolabideetan ezinbestekoak izan daitezkeen zuzenketak egiteko saloa egin ahal izango dio. Eusko Jaurlaritzak, Lurralde-Antolakuntzako Batzordearen eta doakien Administrazioaren iritzia jaso ondoren, bakoitzean bidezko izan dadin erabakia hartuko du.”

Azkenik, gaineratzen du: “Lurraldearekiko Alor-Egitamuek eta Lurralde-Antolakuntzako Artezpideekin eta, hala egokituz gero, Lurraldearekiko Zati-Egitamuekin izan ditzaten aurkakotasunak, horiek bere baitan izan ditzaten AlorEgitamuen zatia edo zatiak indargabetzeko zio izango dira.”

Lehenengo xedapen gehigarria legea idatzi zen unerako emana bada ere, zentzu bete hartzen du momentu honetan ere. Honela dio xedapen horrek:

“Lurralde-Antolakuntzako Artezpideak behin-betirako onartu artean, Lurraldearekiko Alor-Egitamuek gertatu eta bideratu ahal izango dituzte gaitasunaren jabe diren Herri-Administrazioek, Egitamuek, Lege honetan eta hasierako onarpena emana duten Lurralde-Antolakuntzako Artezpideetan jasotako helburuen aurkakoak izan ez izatearen baldintzapean.”

2018ko otsailaren 20ko, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Aginduz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenari buruzko dokumentuari hasierako onarpena ematen zaio, eta 12. artikulua 4. atalean honako hau ezartzen du:

“Merkataritza-ekipamenduei buruz honako gidalerro hauek kontuan hartu behar dira:

- a) Gure herrietako hiri-bizimodua sustatzea, hiriko merkataritza lehenetsita aldiriko merkataritzaren aurrean.
- b) Merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatzea interes orokorreko



Usurbilgo Udala

ezinbesteko arrazoien arabera, hala nola lurraldearen antolamendua eta hirigintza."

5. atalak zera ebatzen du:

"Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean honako gidalerro hauek txertatuko dira: a) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sorrera publikorako eragiketak ezartzea.

b) Udal-kategorizazioa mantentzea lehentasunezko interesa duten eta hazkunde apalekoa eta garapen txikikoak diren udalerrietan, udal-planetan horri dagokionez burutu beharreko lurralde-politikaren elementu definitzaile gisa.

c) Gaur egun "industriarako" edo "jarduera ekonomikoetarako" kalifikatutako lurzoruak "bizitegirako" edo antzeko erabileretarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik alde aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean teknikoki, ekonomikoki eta hirigintza-arloaren ikuspegitik ezinezkoa dela beste hirigintza-eragiketa bat planteatzea. Kasu horretan, bada jarduera ekonomikoetarako lurzoru berria —azalera baliokidearekin— txertatuko da hirigintza-plangintzan."

Honez gain 6. atalak:

"Jarduera ekonomikoetarako lurzoru pakete handien dimentsionamenduaren azken erantzuleak izango dira Lurralde Plan Partzialak."

Azkenik 7. atalak adierazten du:

"Lurralde Antolamenduaren Gidalerro hauetan ezarritako eta EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurralde Plan Sektorialean adierazitako erreferentzia orokorrak alde batera utzita, udalerrri bakoitzak gehienez lurzoruaren 3 hektarea aurreikusi ahalgo ditu ingurune naturalaren gain inpaktu esanguratsurik eragin gabe harrera-ahalmen nahikoa dagoenean."

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIA JARDUERETARAKO LURZORU PUBLIKOA ETA MERKATARITZA EKIPAMENDUAK SORTZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN BERRIKUSPEN PARTZIALAREN AURRERAKINAK, MERKATARITZA-GUNE HANDIEN ANTOLAMENDUARI DAGOKION ATALEAN, honako hau azaltzen du hitzez hitz:

"VI.5.- LEHEN HURBILKETA EZTABAIDARA.

Garapen jasangarriaren bila gaur egun gizartea mugitzen duten jarraibideek, ikusitako egoerak eta egindako diagnostikoak, lurraldean gauzatu beharreko ekintzak bertan txertatzea eta, ondorioz, lurralde-antolamendutik indarreko jasangarritasun-printzipioak lortzeko aukera

emango duten neurriak hartzea eskatzen dute.

Testuinguru horretan, hainbat irtenbide har daitezke. Orain arte hiru irtenbide aurkeztu dira, dokumentu honen eztabaidatik sor daitekeenaren kalterik gabe. Orain lerro egokiena aukeratzea da kontua.



Usurbilgo Udala

1. irtenbideak hirigintza-plangintza hartzen du hartu beharreko erabakiak hartzeko oinarritzat. Horrek esan nahi du lurralde-antolamenduaren arloko erregulazioaren zehaztapena tokiko eskalara eramaten dela, eta horrek udalerrri bakoitzaren udal-mugetatik harago doan ikuspegia galtzea dakarrela. Horrek sortu dituen egoeren adibide dira Arabako Gorbeia edo Rivabellosako merkataritza-gune handiak. Hala ere, Lurralde Planek hartu beharko lukete hori kontuan, udalazgaidiko ikuspegia txertatuz.

2. irtenbideak lurralde-ikuspegitik zalantzarik ez duen erantzuna planteatzen du merkataritza jarduera batez ere bizitegi-erabilerako hiriguneetara bideratzen duen ereduaren alde, hirizentraltasunarekin nahiz auzo-zentraltasunarekin, hiriaren antolamenduan sinergiak lortzeko, behar diren erabilera-nahasketa eta konplexutasuna bilatzeko eta mugikortasun ezmotordunaren kuota handiagoak lortzeko helburuarekin. Lerro horretako jarduketan adibideak dira hiriguneetara eta, bereziki, oinezkoentzako eremuetara bideratutako azalera txikiko nahiz azalera handiko merkataritza-jardueren ezarpenak.

3. jarduerak ere merkataritza-jarduera batez ere bizitegi-erabilerakoak diren hiriguneetara bideratzen duen eredu proposatzen du lurralde-antolamenduaren ikuspegitik, hiri zentraltasunarekin nahiz auzo-zentraltasunarekin. Modu osagarrian, merkataritza jarduerak baldintza jakin batzuetan ezartzeko aukera planteatzen du, ekonomia jardueren eremuetan nahiz xede horrekin mugatutako lurralde-unitate berrietan. Azken aukera horren ereduak dira Durango eta Abadiñoko ezarpenak Bizkaian, edo Oiartzungoak Gipuzkoan.

Aurrerakin dokumentu honen xedea egoeraren ikuspegia eskaintzea eta esku artean dugun arazoari lurralde-ikuspegitik erantzun egokia emateko ezar daitezkeen soluzioak irudikatzen irtenbideak azaltzea da.

Horregatik, Aurrerakin irekia egin nahi izan da, irtenbide horiek jasotzen dituen. Merkataritza-gune handien kontzeptuak, eraikuntza tipologienak eta establezimenduen tamaina edo neurriaren kontzeptuak ere jaso ditu, eta dokumentua arrazoitzen duten eta ingurunean egin beharreko ekintzak txertatzea eskatzen duten lurralde- eta ingurumen-irizpideen kontzeptuak.

Hala, kontuan hartutako irizpideak ere eztabaidatu egin dira:

Aipaturiko merkataritza establezimenduen ezarpena hiriko lurralde-antolamenduko eta ingurumenaren babeseko indarreko jarraibide orokorrekin bat etorritik eta haiekiko bateragarritasunarekin eta/edo une honetan behar bezala justifikatutakoekin bermatu eta/edo sustatzen duten irizpideak, egungo hiri-bilbeetan txertatzearekin zerikusia dutenak barne, inguruko merkataritzarekin sinergiak sustatzea, merkataritza-eredu hori mantentzea eta hiri eraldatzeko eta hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko aukera ematen duten tresna gisa erabiltzea eragiten duten baldintzetan.

* Aipaturiko establezimenduak ingurune naturalean ezarri eta, horren ondorioz, artifizializazioa handitzeko soluzioak minimizatzeari lotutako irizpideak.

* Establezimenduak mugikortasun jasagarriaren jarraibide arautzaileekin bat datozen



Usurbilgo Udala

baldintzetan ezartzea bermatu eta/edo ziurtatzen duten irizpideak, trafiko arloko jarraibide egokien ondoriozko zehaztapenarekin.

Establezimenduak ingurumen-baldintza egokietan ezartzea bermatu eta/edo ziurtatzen duten irizpideak, zaratarekin eta abarrekin zerikusia dutenak barne.



Usurbilgo Udala

BALORAZIOA

Nolanahi ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren hasierako onarpen dokumentuaren 12. artikuluaen 5. atalak ezartzen duena jasotzen duen aukera bakarria 3. alternatiba da, eta horrela adierazten du dokumentu berak hurrengo esatean:

“3. irtenbide horretan, EAeko udalerrak kategoriatan sailkatzea proposatzen da merkataritzagune handien antolamenduaren eta ezarpenaren xedeetarako. Katgoria hauek bereiziko dira: zentraltasun handieneko udalak, hiru hiriburuetakoko Eremu Funtzionaletan kokatutakoak baina horietara guztiz hedatu gabe (A katgoria); eskualdeko zentraltasuna duten udalak (B katgoria); eta EAeko gainerako udalak (C katgoria).

Katgoriak dokumentu honetan jasotako guztia kontuan hartuz egin dira eta, bereziki, lurraldearen eta kokalekuen ezaugarriak kontuan hartuz, eta VIII.2 eranskineko grafikoetan daude irudikatuta.”

Horren ondorioz, eztabaida bera jaiotzaz baliogabea da, proposatutako aukeretatik 3.a bakarrik betetzen baititu Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren hasierako onarpen dokumentuak ezarritako irizpideak.

Horri dagokionez, ezinbesteko da ingurumen azterketa arautzen duen abenduaren 9ko 21/2013 Legearen artikulua ezartzen duena aipatzea, honako hau definitzean:

«Estudio ambiental estratégico»: estudio elaborado por el promotor que, siendo parte integrante del plan o programa, identifica, describe y evalúa los posibles efectos significativos sobre el medio ambiente que puedan derivarse de la aplicación del plan o programa, así como unas alternativas razonables, técnica y ambientalmente viables, que tengan en cuenta los objetivos y el ámbito territorial de aplicación del plan o programa, con el fin de prevenir o minimizar los efectos adversos sobre el medio ambiente de la aplicación del plan o programa.»

Zehazki, 18. artikulua, ingurumen azterketa estrategiko arruntari hasiera emateko eskariari buruz honakoa dio:

“1. Dentro del procedimiento sustantivo de adopción o aprobación del plan o programa el promotor presentará ante el órgano sustantivo, junto con la documentación exigida por la legislación sectorial, una solicitud de inicio de la evaluación ambiental estratégica ordinaria, acompañada del borrador del plan o programa y de un documento inicial estratégico que contendrá, al menos, la siguiente información:

a) Los objetivos de la planificación.

b) El alcance y contenido del plan o programa propuesto y de sus alternativas razonables, técnica y ambientalmente viables.”

Esandakoetatik ondorioztatzen denez, 2. alternatibari kategorizazioa gehitu beharko zaio, hartara gutxienez bi izan daitezten legez onargarriak diren alternatibak. Eta, hala, dokumentuaren baliogabetasuna saihestuko litzateke.



Usurbilgo Udala

Baina hau nahikoa ez balitz, honako aurrerakin dokumentu honek ez du genero inpaktu azterketa jasotzen. Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 26. artikulua, Lege eta Erregelamendu mailako arauen onartzeari buruzko prozedurari dagokionean, eta Alorreko Lurralde Plan hau hauen artean legoke, bere 3. atalean Arau Inpaktu Azterketa Memoriak zenbait atal jaso beharko ditu eta hauen artean honako hau aurkitzen da:

“f) Impacto por razón de género, que analizará y valorará los resultados que se puedan seguir de la aprobación de la norma desde la perspectiva de la eliminación de desigualdades y de su contribución a la consecución de los objetivos de igualdad de oportunidades y de trato entre mujeres y hombres, a partir de los indicadores de situación de partida, de previsión de resultados y de previsión de impacto.”

Hau gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren ondorio delarik, eta zentzu honetan aipatu beharra dago 2015eko urriaren 6ko Epaitegi Goreneko eta oraintsuko 2017ko apirilaren 19ko Madrilgo Epaitegi Nagusiaren Epaiak.

Beraz, hasierako onarpena egin aurretik, generoaren inpaktu azterketari dagokion dokumentua idatzi beharko da, honela planaren baliogabetzea ekar lezakeen akatsa konponduko litzateke.

Kasu honetan, organo eskudunari erreparatuz gero guztiz aplikagarri ez bada ere, Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen tokiko erakundeei buruzko eskumenei buruzko 7. artikulua 7. atalaren arabera, honako hau ebazten da: *“Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.”*

Honakoan ere ez da euskararen inpaktuari buruzko azterketarik egin, beraz aurrerakin dokumentuak inpaktu azterketa hori jaso beharko luke.



Usurbilgo Udala

ONDORIOAK

Esandako guztia kontuan hartua, honakoa **ESKATZEN DUT idatzi hau onartua izan dadila, eta bera aintzat hartuta:**

- Aurrerakin dokumentuan proposatzen den bigarren alternatibari herrien kategorizazioa gehitzea, hartara **gutxienez bi izan daitezen legez onargarriak diren alternatibak.**
- Hasieraz onartu aurretik, ingurumen, genero eta euskarari dagozkien inpaktu azterketak egin daitezela.

Aldaketok eginda dokumentuaren baliogabetasuna saihestuko litzateke.

Usurbilen, 2018ko martxoaren 28an.

Xabier Arregi Iparragirre

Usurbilgo Alkatea

Registro de entrada

Día: 28/03/18

Oficina: 3812 - TUR - O.T. GIPUZKOA

Destino: 2584-09103000-GIPUZKOA TURISMO ETA MERKATARITZAKO LUJOFICINA TERRIT. TURISMO Y COMERCIO GIPUZ

Pág.núm.:1

Relación: 8

GOB - ZUZENEAN DONOSTIA-S.SEBAST

Núm. registro: 20180000267966

Fecha de registro: 28-03-2018 13:25:26

Origen:

Remitente:

Asunto:

Resumen:

USURBILGO UDALA

MERKATARITZA GUNE HANDIEN LAP-AREN
AURRERAKINARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

DILIGENCIAS: SE HAN RECIBIDO TODOS LOS DOCUMENTOS RELACIONADOS EN ESTA HOJA DE REGISTRO.
DOCUMENTACIÓN TRAMITADA SEGUN EL ARTICULO 38.4 PR LA LEY 30/92. PARA CUALQUIER INCIDENCIA DIRIJANSE DIRECTAMENTE AL INTERESADO.

Foto:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO